

## 5. KONTUEN AUDITOREEN ERREGISTRO OFIZIALA ETA AUDITORE IZATEKO BALDINTZAK.

### Aurkibidea

- Helburuak
- Auditore baten nahitaezko parte hartzea urteko kontuen auditorian eta beste lan batzuetan
- Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatzea, auditore izateko ezinbesteko baldintza
- Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialaren atalak eta inskripzioak
- Auditore bezala gaitua izateko baldintzak. Auditore izateko jarraitu beharreko pausoak
- Glosategia

### 5.1. HELBURUAK

Ikasgai hau, osorik, auditore izateko beharrezkoak diren baldintzei buruzkoa da. Kontabilitatean aditua den edozein pertsonak ezin du kontuen auditoria bat egin. Auditoreak, auditoria lanak egiteko bereziki prestatuak dauden pertsonak dira. Baldintza berezi batzuk bete behar dituzte eta goi prestakuntza bat izan behar dute beraien lanak, enpresa ikuskatuaren aurrean eta ikuskaritza txostena erabiliko dutenen aurrean, sinesgarria izan dadin, enpresa ikuskatuaren informazio ekonomiko kontablearen kalitatea ezagutzea posible izan dadin eta lan hori enpresa ikuskatuarekiko erabakiak hartzeko orduan, berme batekin, erabiltzea posible izan dadin.

Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta ez dagoen pertsona bat ezin da ikuskaritza lanetan auditore bat bezala aritu. Horregatik, ikasgai honetan, pertsona batek, Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatu ahal izateko, bete behar dituen baldintzak aztertuko ditugu, zein egoeratan inskribatu daiteken, Erregistro honekiko auditoreak bete behar dituen obligazioak, etab.

Hori guztia kontuan izanik, ikasgaia bukatutakoan ikasleak hurrengo gaiak ezagutuko ditu:

- Zeintzuk diren pertsona batek auditore izateko bete behar dituen baldintzak eta auditoriak egin ahal izateko bete behar direnak
- Zer den Kontuen Auditoreen Erregistro Ofiziala eta zein egoera desberdinetan inskriba daiteken auditorea
- Zeintzuk diren, Auditoreen Erregistro Ofizialarekiko, auditorearen obligazioak

## **5.2. AUDITORE BATEN NAHITAEZKO PARTE HARTZEA URTEKO KONTUEN AUDITORIAN ETA BESTE LAN BATZUETAN.**

Auditoriari buruzko Legearen 1.4 artikulua dioenez, Kontu-auditoria lanak, obligazioz, auditore batek egin beharko ditu.

Baina auditoria ez du kontabilitatean aditua den edozeinek egingo. Kontu-auditoria, independentea den eta Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean (ROAC) izena emanda daukaten pertsona fisiko edo juridikoek egin dezakete. Auditoria, ikuskatutako enpresarengandik pertsona independente batek egiten duenez, sinesgarria izango da hirugarrenentzat.

Kontuen auditoria aditua eta ikuskatua izango den enpresarengandik independentea den pertsonak egingo dute, hirugarrenen aurrean beren lana sinesgarria izan dadin.

Erregistro horretan inskribatu ahal izateko, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren baimena lortu behar da, baimen hau prestakuntza teorikoa eta praktikoa izan ondoren eta azterketak gainditu ondoren lortzen delarik.

Ikuskatua izango den sozietateak, Auditoreen Erregistroan inskribatuta dauden profesionalen artean aukeratu beharko du auditorea. Auditoria, kontabilitateari buruz asko dakien baina Erregistro horretan ez dagoen norbaitek egingo balu ez litzateke benetako auditoria bat izango eta ikuskatua izateko obligazioa duen sozietateak obligazio hori bete izan ez balu bezala izango litzateke.

## **5.3. KONTUEN AUDITOREEN ERREGISTRO OFIZIALEAN INSKRIBATZEA, AUDITORE IZATEKO EZINBESTEKO BALDINTZA.**

Kontuen Auditoria, Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore independente batek egin behar du beti. Kontu auditoriari buruzko Legearen 7.1 artikulua, kontuen auditorian aritu ahal izateko, Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta egotea galdatzen du. Gainera, bere jardueraren ondorioz sor daitezken kalteengatik erantzun ahal izateko berme bezala, fidantza bat jarri beharko du. Kontuen Auditoria, Erregistro honetan inskribatuta daudenek soilik egin dezakete.

Auditoreen Erregistro Ofizialean izena emateko baldintza batzuk bete behar dira. Baldintza hauek, auditoreak, bai teoria mailan eta profesionalki, bere lana behar bezala egin dezan, prestakuntza tekniko egokia izango duela ziurtatzera zuzenduta daude. Erregistro hau Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuaren menpe dago.

Auditoreen Erregistro Ofiziala publikoa da eta interesatuta dagoen edozein hiritarrek bere edukia ikus dezake medio telematikoen bitartez (Erregistro horretan inskribatutako auditoreen zerrenda). Erregistro honetatik zein diren auditore eta auditoria lanak nork egin ditzaken jakin dezakegu.

Erregistro hau Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak kudeatzen du.

Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutua, kontabilitatean eta kontuen auditorian Administrazioaren gorengo organoa da eta bere funtzioak 10. ikasgaiaren garatuko dira.

#### 5.4. KONTUEN AUDITOREEN ERREGISTRO OFIZIALAREN ATALAK ETA INSKRIPZIOAK.

Auditoreen Erregistro Ofiziala hiru atalek osatzen dute: bat, pertsona fisikoek buruzkoa; bestea pertsona juridikoei buruzkoa; eta hirugarren bat, hirugarren estatuetakoa, auditoria sozietateak eta bestelako auditoria entitateak (Erregelamenduaren 27. art.a).

##### 1. Pertsona fisikoak diren auditoreak.

Pertsona fisikoen atalean, auditoreek, kontuen auditoria jarduerarekin daukaten harremana zehaztuko dute. Harreman hau hiru hauetakoa bat izango da: a) Jardunlariak; b) Jarduten ez dutenak baina hirugarrenentzat zerbitzuak prestatzen; c) Jarduten ez dutenak.

a) **Jardunlari** bezala inskribatuta dauden auditore pertsona fisikoek soilik burutu dezakete kontuen auditoria jarduera. Aldi berean, egoera honetan, bai indibidualki, Auditoria Sozietate bateko bazkide bezala edo "auditoria sozietate baten izenean txostenak sinatzeko espresuki auditoria sozietate bateko izendatutako auditorea" arituko da.

Mota honetako izen-ematea egiteko, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuari idatzizko eskaera egingo zaio, eskaerarekin batera jarri beharreko fidantza egiaztatzen duten agiriak bidaliz. Fidantza hori auditoria sozietateetako auditore jardunlariak ere jarri behar dute.

b) Ez jardunlari **hirugarrenentzat zerbitzuak prestatzen** egoeran inskribatzeko, auditore jardunlari edo auditoria sozietate batekin laguntzaile lanetan aktiboki jardun behar da, kontuen auditoria gaietan. Egoera hau frogatzeko KKIIan auditoreak edo auditoria sozietateak emandako ziurtagiri bat aurkeztu behar du.

Zergatik inskribatzen dira auditore batzuk egoera honetan? Beren kontura jardunlari bezala jartzen badira, badakite segur aski ez dutela bezerorik izango, ez baitira merkatuan ezagunak. Gainera, auditorian aritzeko beharrezkoa den azpiegiturak esfortzu ekonomiko bat eskatzen du (ad. bulegoa). Ondorioz, posible da denboraldi batean beste baten kontura lan egitea nahiago izatea.

c) **Jarduten ez duten** bezala izena ematen dutenak kontuen auditoria jarduera burutzen ez dutenak dira. Hala ere, aurreko ataletan adierazitako egoeretara aldatzeko aukera izango dute, aldezturik, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuari horrela eskatzekotan.

Europar Batasuneko beste Estatu kide batean auditorea den pertsona bat Espainiako Kontuen Auditoria Erregistroan inskribatu daiteke. Horretarako, KKII-ren baimena behar du, espainiar auditoreek bete behar dituzten baldintzak bete behar

dituztelarik eta espainiar arauak ezagutzen dituztela frogatzeko azterketa egin beharko dutelarik. Printzipioz, froga hauek bi urtetan behin egin beharko dira.

## 2. Auditoria Sozietateak.

Auditoria Sozietate bat Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatzeko, lehenengo, Auditoria Sozietate bat eratu ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak bete behar ditu eta, gainera, fidantza bat jarri beharko du (auditore pertsona fisikoek bezala baina beste kopuru bat).

## 3. Hirugarren estatuetauko auditoreak eta auditoria sozietateak.

Europar Batasunetik kanpo eratutako espainiar burtsan kotizatzen duten sozietateen urteko kontuen auditoriak egiten dituzten hirugarren Estatuetauko auditoreen eta auditoria sozietateen atal bat da. Hala ere, inskripzio honek ez die espainiar sozietateen urteko kontuen auditoria egiteko baimentzen.

### **Auditoreen zerrendak**

Auditoreen Erregistro Ofizialak, bertan inskribatutako auditoreen zerrenda eguneratua izan behar du, informazio hori publikoa izango delarik, edozein medio elektronikoko bidez ere (Legearen 7. art.a).

Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuak (Auditoreen Erregistro Ofiziala Institutuaren menpe dago), urtero, auditoreen zerrenda eguneratua argitaratu behar du. Egia esan, auditore pertsona fisikoen eta Auditoria Sozietateen zerrenda bat argitaratuko ditu (Erregelamenduaren 31. art.a)

Zerrenda horiek, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuaren Aldizkarian argitaratuko dira (BOICAC).

Auditore pertsona fisikoen kasuan, bere izena, zein egoeratan inskribatuta dagoen eta, jardunlari bezala inskribatuta badago, helbide profesionala, interneteko helbidea eta zein auditoria sozietaterekin erlazionatuta dagoen, hala balego.

Auditoria Sozietateen kasuan, hurrengo datuak adieraziko dira: egoitza soziala, bazkide bakoitzaren izena eta abizenak, zuzendaritza eta administrazioa noren esku dauden, sozietatearen zerbitzura dauden auditoreen izena eta abizenak kontuen auditoriak egiteko eta txostenak sinatzeko izendatuak izan direnak identifikatuz.

### ***Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialera auditoreek bidali beharreko Informazioak (Erregelamenduaren 79. art.a)***

Jardunlari bezala inskribatuta dauden auditore pertsona fisikoak eta Auditoria Sozietateak, urtero urtarrilean, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuari, aurreko urtean egindako jardueri buruz informazio zabal bat bidaltzera behartuta daude (egoitza profesionala eta irekita dituzten bulegoak, zein Korporazioko kide diren, web orria eta, ez izatekotan, helbide elektronikoa, ikuskatutako enpresen zerrenda,

fakturaturako orduak, beren zerbitzura lan egin duten auditoreen zerrenda...). Auditoria Sozietateek bazkideei buruz, kapitala, administratzaileak eta zuzendariak eta hainbat informazioez informatu beharko diote.

Bidali beharreko informazioaren ereduak Institutuaren web orrian aurkitu daitezke (Resolución de 29 de junio de 2012 del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas, por la que se aprueban los modelos 02 y 03, de información a remitir por los auditores de cuentas ejercientes y sociedades de auditoría, respectivamente).

## **5.5. AUDITORE BEZALA GAITUA IZATEKO BALDINTZAK. AUDITORE IZATEKO JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK.**

Auditore bezala gaitua izateko ondorengo baldintzak bete behar dira (Kontuen Auditoriari buruzko Legearen 8. artikulua eta Erregelamenduaren 33. art.a):

a) 18 urte beterik izatea.

b) Nazionalitate espainola edo Europar Batasuneko beste edozein estatukoa izatea.

c) Doluzko delituengatik zigor aurrekaririk ez izatea.

Dolua, kulparen gradurik larriena da. Emaitzarengan kontzientzia eta borondatea daude. Maltzurkeria eta intentzioa egotea beharrezkoak dira.

d) Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak emandako baimena izatea. Baimen hori hurrengo baldintzak betez lortzen da: Unibertsitateko titulazioa izatea, prestakuntza teorikoa, prestakuntza praktikoa eta gaitasun profesionalaren azterketak gainditzea.

Unibertsitateko edozein tituluk balio du.

VIII. Direktibak ez du unibertsitateko titulu bat izatea galdatzen, unibertsitatean sartu ahal izateko beharrezkoa den maila baizik. Europar Batasuneko estatuen zirkunstantzia historikoak, ekonomikoak, kulturalak eta sozialak desberdinak dira. Ondorioz, estatuak direktibatara egokitu daitezten, direktibek zentzuzkoak diren minimoak galdatzen dituzte. Minimo hori errespetatu egin behar da. Baina estatu batean minimo horiek igotzea beharrezkoa ikusten dutenean, zentzuzkoa da horrela egitea.

### ***Auditore izateko jarraitu beharreko pausoak***

#### **1. Prestakuntza teorikoa.**

Auditorea izan nahi duenak, kontuen auditoriari buruzko gaiez edo berarekin erlazionatuta dauden gaiez ikastaro edo programak jarraitu behar ditu.

Irakaskuntzarako ikastaroek gai hauei buruz jardungo dute (Legearen 8.2 c) art.a):

- Finantza informazioaren araudia
- Finantza analisia, egoera kontableei buruzkoa.
- Kostuen kontabilitate analitikoa eta Kudeaketa kontabilitatea
- Arriskuen kudeaketa eta barne kontrola.
- Kontuen auditoria eta auditore izateko arauak.
- Kontuen auditoria eta auditoreen eta auditoria sozietateen kontrolari buruzko arau aplikagarriak.
- Nazioarteko auditoria arauak
- Etika eta independentziari buruzko arauak.
- Sozietateen zuzenbidea, konkurtsoaren zuzenbidea, zerga zuzenbidea, zuzenbide zibila, merkataritza zuzenbidea, lanaren eta gizarte-segurantzaren zuzenbidea, informazio eta informatika sistemak, enpresa ekonomia, ekonomia politikoa eta finantza ekonomia, matematikak, estatistika eta enpresen kudeaketa finantzarioari buruzko oinarrizko printzipioak.

Ikastaro teoriko horiek, Unibertsitateek eta auditoreen Korporazioek antolatu eta emango dituzte. Kurtso horiek, aurretik, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak homologatu beharko ditu.

Subsidiarioki, ikastaro hauen antolaketa eta ikastaroak ematea Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren esku geratuko da.

Bi Korporazio daude:

- Kontuen Azterlari Zineginen Institutua (Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España). [www.icjce.es](http://www.icjce.es)
- REA+REGA Auditoreak, Ekonomisten Kontseilu Orokorrekoak. [www.rea-rega.economistas.es](http://www.rea-rega.economistas.es)

Kontu auditoriari buruzko Legeak eta bere Erregelamenduak, prestakuntza teorikoaren kurtsoei buruzko eta lehen faseko azterketari buruzko baliozkotzeak eta dispentsak erregulatzen dituzte, auditore izan nahi duena, zenbait titulaziotan gainditutako irakasgaiari buruzkoak (Legearen 8.2 c) eta Erregelamenduaren 34.2 art.ak).

Unibertsitateko Gradu eta master titulu ofizialekin, ezin dira baliozkotzeak orokor bihurtu, beste garai batean, Diplomatura eta Lizenziaturekin egiten zen bezala, Unibertsitate desberdinetan, tituluak ez baitute ez deitura ez eduki berdina. Hori dela eta, titulu bakoitza indibidualki baloratuko da eta KKII.ak erabakiko du titulazioan gainditu diren irakasgaien eta auditore izateko gainditu behar diren prestakuntzan

egiten direnekin korrespondentziarik ote dagoen. Auditorearen prestakuntza teorikotik, Gradu edo masterrean gainditu dituzten irakasgaiak baliozkotuko zaizkie.

## 2. Prestakuntza praktikoa (Legearen 8.2 eta Erregelamenduaren 35. art.a)

Auditore izatera iritsi nahi duenak, obligazioz, prestakuntza praktikoa bat izan beharko du.

Prestakuntza praktikoa helburua, auditore izan nahi duenak dituen ezagutza teorikoa praktikara aplikatzeko gaitasuna izatea ziurtatzea da, bere auditoria lanak egiteko gai izan dadin.

Prestakuntza praktikoa kontabilitate eta finantza arloetan gutxienez hiru urtez lanean arituz lortuko da, bereziki urteko kontuetan, kontu bateratuetan edo antzeko dokumentu finantzarioetan murgildu behar delarik. Hiru urte hauetatik bi gutxienez auditore jardunlari batekin aritu beharko da. Prestakuntza praktikoa baldintza hau, prestakuntza hau Europar Batasuneko edozein estatutan egin dela frogatzen duen ziurtagiri bat aurkeztuz betetzen da.

5100 ordu egin direla ziurtatu behar da. Horietatik 3400, kontu auditoria jardueran izan behar dira. Prestakuntza praktikoa, orokorrean, prestakuntza teorikoa ondoren egingo da. Hala ere, 425 ordu gehienez, lehenago egin daitezke eta 850 ordu gehienez prestakuntza teorikoa egiten ari den bitartean egin daitezke (auditoria praktikak bereziki).

Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden auditoreek, Korporazio bateko kide izan edo ez, auditore izan nahi duten pertsonak beren bulegoetan har ditzakete, hauek, praktika hori lor dezaten. Auditoreek eta Auditoria sozietateek Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuari, urtero, beraiekin egindako praktikez jakinarazi behar diote.

Hala ere, esan beharra dago, praktika horiek, gainditzea oso zailak diren eragozpenak direla, izan ere, auditore izan ahal izateko benetako oztopoak. Egia esan, auditore direnen seme-alabek o familiakoek edo Auditoria Sozietateetan lehendik enplegatuta daudenek praktika hori lortzeko errazagoa izango dute.

## 3. Gaitasun azterketa.

Azterketa honen helburua, kontuen auditoria egiteko beharrezkoak diren ezagutza teorikoen maila nahikoa eta ezagutza teoriko horiek praktikara aplikatzeko gaitasuna ziurtatzea da.

Azterketa hauek, auditoreen Korporazioek egiten dituzte, eta subsidiarioki, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak egin ditzake.

Azterketa hauek bi fase desberdin izango dituzte:

- Lehenengo faseko azterketaren helburua, ikastaroetan ikasitako gaietan lortutako ezagutza teorikoa maila egiaztatzea da.

- Bigarren faseko azterketaren helburua, ezagutza teorikoak kontuen auditoria jardueran aplikatzeko gaitasuna egiaztatzea da. Fase hau, prestakuntza praktikoa izan eta azterketa teorikoa gainditu dutenek soilik burutu dezakete. Auditore izan nahi duenak, auditoria lanak egin ondoren (enpresa baten auditoria egin izan balu bezala), auditoria txostena egin behar du.

Azterketak, deialdi bakar baten bidez egingo dira, bi Korporazioek batera egiten dutelarik azterketaren deialdia eta, subsidiarioki, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuak egin dezake (Institutua izan behar da, beti, deialdiak onartu behar dituenak). Deialdia, orokorrean, bi urtean behin izango da. Azterketa teorikoa eta praktikoa egin ahal izateko, prestakuntza teorikoa eta praktikoa eginak izan behar ditu eta auditore izateko beste baldintza guztiak beteak. Azterketa teorikoa eta praktikoa gainditzen dituenak, nahi duen Korporazioa aukera dezake bertako kide izateko (bat baino gehiago aukera dezake) eta Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatzeko eskubidea izango du.

Auditore izan ahal izateko, beharrezkoa da Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta egotea baina ez da beharrezkoa izango Auditoreen Korporazio bateko kide izatea. Auditore bat, gaur egun dauden korporazio batean edo bietan inskriba daiteke edo baten ere ez inskribatzea aukera dezake, hau da, beraien lanbidean askatasun osoz aritu daitezke korporazioen kontrolarik kanpo. Hori bai, Auditoreen Erregistro Ofizialean obligazioz egon beharko du inskribatuta auditore bezala jardun nahi badu.

### ***Auditore izateko ez-ohizko bidea***

Unibertsitateko titulurik gabe baina esperientzia profesional luze batekin auditorea izateko bidea izango litzateke. Unibertsitateko titulurik ez baina unibertsitatean sartzeko titulu nahikoa izan behar da.

Posible da, salbuespen gisa, unibertsitateko titulurik gabe baina beste baldintza guztiak betez auditore izatera heltzea, baldin eta gutxienez, zortzi urteko prestakuntza praktikoa bat badu kontabilitate eta finantza arloetan, bereziki, urteko kontuen, kontu bateratuen edo antzeko dokumentu finantzariotan kontrolaren inguruan. Zortzi urte hauetatik gutxienez bost Europar Batasuneko Estatu batean auditore jardunlari batekin izan beharko dira.

Ondorioz, ez-ohizko bide bat bezala, unibertsitateko titulu eza onartuta dago, praktika profesional luze batekin konpentsatzen bada, hiru urtetik gutxienez zortzi urtera igotzen delarik.

Gainera, auditore izan nahi duenak, ikastaro teorikoak egiteaz gain, auditore izateko gaitasun azterketak gainditu beharko ditu.

### ***Etengabeko Prestakuntza***

Nahiz eta Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon, azterketa teorikoa eta praktikoa gainditu ondoren, auditoreak etengabeko prestakuntza bat izan behar du



zenbait jarduera eta kurtso eginaz (Legearen 7.7 art.a). Kurtso hauek, auditoreen Korporazioek, Unibertsitateek eta beste entitate batzuk antolatu ditzakete.

Erregelamenduaren 40. artikulua dioenez, auditore jardunlariek eta jarduten ez duten baina hirugarrenentzat zerbitzuak prestatzen dituztenak, hiru urtero 120 orduko etengabeko prestakuntza egin behar dute, urtero, gutxienez, 30 ordu egin behar dituztelarik.

Jarduten ez duten auditoreek ez dute zertan etengabeko prestakuntza hau egin behar. Geroago, jardunlari izatea eskatzen badu, eskaera aurreko hiru urteetan 120 orduko prestakuntza jarraitua egin duela frogatu behar du. Ordu horietatik, gutxienez 50 ordu, eskaera egin aurretiko hamabi hilabetetan frogatu beharko du.

Etengabeko prestakuntza, kurtsoak, mintegiak, kongresuak, topaketak etab. izan daitezke, bai hizlari bezala bai bertaratutakoa bezala; kontabilitatearekin eta kontuen auditoriarekin zerikusia duten lan taldeetan parte hartu, batzordeetan; kontu-auditoriarekin zerikusia duten liburuak, artikulua argitaratu; Unibertsitateetan klaseak eman, medio elektronikoen bitartez, etab.

## 5.6. GLOSATEGIA

### **Auditoreen Korporazioak**

Auditoreen Kolegio profesionalak izango balira bezala dira baina, bat egon beharrean, bi daude. Gainera, kontuen auditorian jardun ahal izateko, ez Korporazio baten kide izatea galdatzen. Bere funtzioak, orokorrean, bere kideen babesa eta laguntza dira eta, bereziki, ikuskatutako enpresaren eskubideen zaintza.

### **Auditoria Sozietatea**

Auditoria Sozietatearen jarduera kontuen auditoria da. Auditoria Sozietateak bazkide batzuk auditoreak izango ditu, sozietatearen izenean kontuen auditoriak egingo dituztenak. Auditoria Sozietateak zazpigarren ikasgaietan aztertuko ditugu.

### **Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritzaren Institutua (Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas-ICAC)**

Administratibo izaera duen erakunde autonomo bat da, Ekonomia eta Ogasun Ministeriopean dagoelarik. Kontabilitatean eta Kontu Ikuskaritzan gorengo organo administratiboa da.

### **Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuaren Aldizkaria (BOICAC- Boletín del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas)**

Aldizka Institutuak argitaratzen duen Aldizkari bat da. Bertan, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzari buruzko Institutuaren erabakiak argitaratzen dira, auditoreei jarritako zehapenak, gai batzuei buruz Institutuari egiten zaizkion kontsultak eta bere erantzunak, etab.